

BIXIGAYAK

Noxian bein urdalari be begirada bat egin biał-dautsagu, bixitzaren arazua geruago gordiñago dago-ta. Gixonak, geyenetan, jaramon gitxi egiten dautsae etxeko ardureari, ta eztabe jakifen bixigayak zelako saneuri edo *prezijuak* eukifen dabezan. Eurak diruba irabazteko alegiña egiten dabe ta uste-ixaten dabe ofegaz gustija dagola eginda. Ofegatik gixonak eztabe jakifen zelako mirarijak egin biał-doguzan emakumiak etxe-biafak betetako, eurek ekaften dauskuben dirubaz. Guda madarikatu au sořtu baño lenago gatxa ba-zan etxakandera batentzako bere etxia ondo atondutia, orain gustiz gatxagua da, bixigayak deukezan saneurijakaz. Egija da alogera edo jornalak be gorantza egin dabela naikotxu; baña saneurijak geyago ta geyago.

Berau erakusteko emen azpijan ipiñiko dodaz guda baño lenagoko bixigayen saneurijak eta orainguak. Begirada baten ikusiko dozube zelako aldia daukezan batzuk eta bestiak eta etxekandereakin efukifuko zarie, noski.

Ona emen:

| BIXIGAYAZ | 1914 ^o GRD. DAGONILAN | | 1918 ^o GRD. URTARILAN | |
|-------------------------------|----------------------------------|---------------|----------------------------------|----------------|
| | Saneuririk mer- kienak | | Karne- nak | Mer- kienak |
| Bei-okelea | kiřua | 1,60 laufleko | 3,20 | 2,20 |
| Txafi-okelea | " | 2,10 " | 5,00 | 3,20 |
| Urdai bafija | " | 2,20 " | 3,00 | 2,80 |
| Urdai gatzatuba | " | 2,40 " | 3,20 | — |
| Koipia | " | 2,40 " | 3,20 | — |
| Makalua | " | 1,45 " | 3,00 | 2,00 |
| Uti edo ařoza | " | 0,45 " | 1,20 | 0,80 |
| Indabeak | " | 0,50 " | 1,00 | 0,70 |
| Lusagar edo patatak | " | 0,11 " | 0,20 | 0,15 |
| Ařautzak | amabikua | 1,20 " | 3,50 | 2,80 |
| Ogija | kiřua | 0,45 " | 0,58 | — |
| Jaboya | " | 0,75 " | 1,70 | — |
| Gaimel edo orijua | litrua | 1,25 " | 2,20 | 2,00 |
| Afi-orijua | " | 0,60 " | 1,25 | — |
| Esnia | " | 0,30 " | 0,50 | 0,40 |
| Ardaa | " | 0,60 " | 0,90 | 0,70 |
| Akeita edo kařia | kiřua | 4,50 " | 6,00 | 4,50 |
| Azukaria | " | 0,85 " | 1,50 | 1,40 |
| Afi-ikatza | 50 kiřo | 2,50 " | 10,00 | 9,00 |

Eta saneurijok eztauke berantza egifeko itxurarik. Onez ganera neguba gofi-gofija ageřtzen da. Ainbat etxetan goxia ta ontza ixango dira jaube. ¡Efuki gakijoezan!

ETXAKIN.

Astakilo etxetik urřen zan bein astuagaz, oni ura edaten emoteko. Ibaia elduta, ikusi eban gure gixonak ur-azpijan agiri zan ilargija.

Astak ura edaten eban bifarřian, adi-adi eguan Astakilo ilargijari begira. Baña bat-batez, odei balzak ageřtuta, ilargija estaldu eban, eta geure Astakilo oldoztun biguřtu zan etxera, emaztiari esaten:

Amobost egunetako gora-berak

ABERI.—Bixitz bafijaz, bifloratuta ageřtu yaku asteroko jeltzale au.

Orain arte nekez bixi-zan-eta, indar bafija emon dautsoe jeltzale gastiak.

Edeřto dago ori. Asteroko ori biał-biafa dogu-ta, pozik ikusi dogu bere befagerkandia.

ARDURA ANDIDUN BATZARAK.—Lengo ilako 29 ta 30^o gařenetan batzaf andijak egin ebezan Bilbao'ko *Filarmónica* deritxon tokijan Bizkai'ko aldun eta ziņegotzi (diptau ta kontzeka) abeftzaliak.

29^o gařenian arazo ugari ta ardura andikuak adiraldu (estudiau) ta erabagi ziran: gustijak Euzkadi geure abefijaren onerako. Egun onetan, laugarren sesiņuan batu ziranak euzkeraz itz-egin eban.

Bijaramonian ontzat arřu ebezan aldun eta ziņegotzijok atzeko egunian arřutako erabagijak eta Bustintza'k euzkeraz itz-egin eban, Eřenteria (B. B. B.'ko lendakarija) ta Egileof'ek (Diptauak) euzkeraz ta eřderaz, bijetara, ta Arana'k (Bilbao'ko alkatiak) eřderaz.

Andik arřtenda, Euzko-Gastedi'ko aretuan bazkaldu eban laureun eta geyago ziņegotzi ta aldun abeftzalek. ¡Eta eurok Bizkai'kuak bakarik!

UDAL BAFIJAK.—Len esandako batzafian erabagi zanar erantzunda, Udal edo Ayuntamiento bafi asko Gobernuar zuzendu yakez Euzkadi'ren kaltez Madrid'an egin diran lagustijakaitik euren asarřa erakusten.

Orixe ixan da Ayuntamiento bafijok egin daben lenengo gauzia.

Edeřto.

ASTAKERIJA.—Astakeri galanta ixan da Gabonzarřian emengo astakume batzuk egin ebena.

Gau ofetako amabijetan asi ziran Ronda-kalian zaratak ta tiroka. Eta axetara bota-biařian, oi-dan lez, kale-erdija dagon Begořa'ko Ama Neskutzaren Irudijari zuzendu eutsoezan eurok.

Eztakigu ondiņo norzuk ixan diran astakilo ofek, bafi eřkalzale edo eřepulbikano batzuk oratu dabez.

Egiņen lotsagarři ori ezta olan geratu biał. Jakin biał e nortzuk egin eutsoen tiroka Ama Neskutzari, irabazi dabe zigofa euroi ezarřteko.

LOTSAGARřIA.—Durango'ko txadon edo eleiz nagusij ipiņi dabez lengo urřian bertan ugutzau (batijau) ziran urř gustijen ixenak. Baña euzkerazkorik, ez.

řZelan ori, euzkel-ixenagaz ainbat ume ugutzau ziran-e urře ofetan doistaf edo alamanen ume bati dotxeraz ip eutsoen ixena. ¡Eta ixen au bai-da ageřtzen ixengadian!

řBaña nun jazoten da geure abefi onetan jazoten daf řEuzkeldunok ez-ete-gara doistafak beste?

Euzkel-ixenagaz ugutzau ziran ume ofen gurasuak ko tubak eskatu biał dautsez eleiz ofetako txauburubari. řZ ba? Onek, pařokua dala-ta beste barik, gura dauna egin -daike? ¡Eřta!

řAi! Au idazten daunak almena edo eskubidia ba'leu zuzenduko leukez (bai, zuzendu ez?) olako drogetan daf txauburubak. Ordubaz ilakiko eban euzkel euren b